

**7/2023 TXOSTENA, MARTXOAREN 16KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN
AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA****XEDEA: SAN MARKOS MANKOMUNITATEAREN EREMUAN HIRI-HONDAKIN
SOLIDOAK GAIKA BILTZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN KOSTUEN EGITURA
ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULA.****I.- AURREKARIAK.**

2023ko otsailaren 16an, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren erregistrora San Markos Mankomunitatearen eskaera bat iritsi zen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari zuzendua, eta bertan eskatzen zion hiri-hondakin solidoak gaika biltzeko zerbitzu-kontratuaren kostuen egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko txostena egin zezan, Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari jarraikiz.

Horretarako, lizitazioaren xede den zerbitzuaren azalpen-memoria bidali da, eta bertan adierazten da aipatutako mankomunitatea osatzen duten udalerrien hiri-eremuko gaikako bilketak kudeatzeko zerbitzu bat dela. Hori gauzatzeko, Mankomunitateak hainbat bilketa-sistema ditu ezarrita, erabiltzailearen eta bilketa-eremuaren arabekoak. Besteak beste, bide publikoan herritarrentzat instalatutako edukiontziaik edo sortzaile berezientzako eta saltokientzako atez ateko bilketak.

SPKLren 29.4 artikulua bigarren paragrafoaren arabera, kontratua gauzatzeko epea 10 urtekoa da, eta lizitazioaren administrazio-klausulen agirietan aurreikusten da Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezarritako prezioen berrikuspena aplikatzea.

Halaber, 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari jarraikiz, sektoreko 5 operadore ekonomikori eskatu zitzaizen kostuen egitura bidaltzeko, eta, jasotako informazioan oinarrituta, kostuen egituraren proposamena egin zen eta jendaurreko informazioaren



izapidea egin zen, eta ez da inolako alegaziorik egon (2022ko martxoaren 2ko GAO, 41. zk.).

II.- ESKUMENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuari hamabigarren xedapen gehigarria gehitu zaio Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubidea bigarrenez aldatzeko abenduaren 13ko 154/2022 Dekretuaren bidez (abenduaren 28ko EHAA, 247. zenbakian).

Hamabigarren xedapen gehigarri horretan jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrari dagokiola Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikulua araberako nahitaezko txostena egitea. Horretarako, hogeit eguneko epea izango du, toki-erakundeen eta haren mendeko organismoen edo entitateen txostenaren eskaera jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Irismenari dagokionez, txostena Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari dagozkion alderdietara mugatzen da.

III.- JURIDIKOKI KONTUAN HARTZEKOAK

Lehenik eta behin, adierazi behar da kontratu publikoetako prezioen berrikuspenaren erregulazioa (zeina Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean jasota dagoen –Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena–) Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legean xedatutakora egokitzen dela. Ildo horretan, prezio-berrikuspene ez da indize orokorren arabera, berriazko indizeen arabera baizik, eta indizeok, berriz, kontratatutako prestazioaren kostu-osagaiak adierazten diren formulen arabera.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 103. artikulua araberakoa, sektore publikoko kontratuen prezioak aldizka eta



aurrez zehaztuta berrikus daitezke, egoera jakin batzuetan, aldez aurretik justifikatuta eta Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuan (55/2017 ED) ezarritakoarekin bat etorriz.

Era berean, 55/2017 EDaren 9. artikulua, «administrazio publikoen obra-kontratuak eta armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuak ez diren sektore publikoko kontratuetan prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikustea»ri buruzkoak, xedatzen du kontratu horien prezioak aldizka eta aurrez zehazturik berrikusi behar direla, kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro ondoren eta, gutxienez, zenbatekoaren ehuneko 20 bete ondoren, betiere kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea bost urtekoa edo gehiagokoa bada, eta hala aurreikusten bada baldintza-agirietan, zeinek aplikatu behar den berrikuspen formula zehaztuko baitute.

Halaber, artikulua kontratazio-espeditentari erantsitako memoriak izan behar duen edukia finkatzen du, baita baldintza-agirietan zehaztu behar diren prezioen berrikuspenari buruzko aurreikuspenak ere, eta ezartzen du berrikuspena ezin dela kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea pasa ostean egin.

Aipatutako 55/2017 EDaren 9. artikulua 7. apartatuaren arabera, bost milioi euroko edo gehiagoko prezioa duten kontratuetarako, kontratazio-organoak kostuen egitura baloratzeko nahitaezko txosten bat sartu behar du kontratazio-espeditentean.

Aipatutako 55/2017 EDaren 3., 4. eta 7. artikuluek prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena eta formula aplikagarrien zehaztapena arautzen duten printzipio eta arau orokorrak jasotzen dituzte, besteak beste:

- Jarduera gauzatzeko edo kontratuaren xedea betetzeko kostu zuzeneko, ezinbesteko eta esanguratsuekiko (>% 1) lotura.
- Ondorioz, berrikuspenak gorantz edo beherantz egin ahal izango dira, kostu horien aldakuntzaren arabera.
- Eskulanaren kostua kontuan hartzen bada, aldakuntza ezingo da izan sektore publikoaren zerbitzura dauden langileena baino handiagoa, Estatuko Aurrekontu Orokorretan ezarritakoaren arabera.
- Ez dira inola ere berrikusiko amortizazio-kostuekin lotutako kostuak, finantza-kostuak, gastu orokorrak edota egitura-gastuak, ez eta mozkin industrialak ere.
- Eragile ekonomikoaren kontrolpean ez dauden kostuen aldaketak soilik sartu ahal izango dira berrikuspen-erregimenetan. Kostuen aldaketak eragilearen kontrolpean

daudela ulertuko da zenbait praktiken bidez saihestu ahal izan direnean (adibidez, hornitzailez aldatuta)

- «Enpresaren efizientzia eta kudeaketa ona»ren printzipioaren arabera, berrikuspen-erregimenak ondo kudeatutako enpresa efiziente batek dagokion jarduera garatzeko jasan beharko lukeen kostu-egitura hartuko du erreferentzia gisa, aplikatu beharreko araudiak edo kontratuaren klausulek eskatzen duten gutxieneko kalitate-mailarekin.
- Era berean, espedientean derrigor txertatuko den memoria batean justifikatu beharko da kontratuaren kalitate-baldintzak eta funtsezko betebeharrak betetzen direla. Hori ezinbestean egin beharko da berrikuspenera egin ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrari dagokio hura bidaltzea. Helburu horretarako, kontratazio-organoak honakoak egin behar ditu: a) Sektorerako bost operadore ekonomikori beren kostuen egitura bidal diezaioten eskatu; b) Jardueraren kostuen egituraren proposamen bat egin, ahal den neurrian, operadore ekonomikoen erantzunetako informazioa baliatuz; c) 20 egunez, kostuen egituraren proposamena jendaurrean jarri; d) Kostuen egituraren proposamena alde aurretik aipatutako Batzorde Iraunkorrari bidali.

SPKLren 103. artikuluan 2. apartatuaren arabera, «prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspenera honako kasu hauetan bakarrik izango da posible: obra-kontratuetan, Administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuetan, energia-hornidurako kontratuetan eta inbertsioa berreskuratzeko bost urteko edo gehiagoko epea duten kontratuetan. Epe hori aipatutako errege-dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik kalkulatu da».

Horri dagokionez, otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikuluan Espainiako ekonomiaren desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen du, eta inbertsioak berreskuratzeko epea kalkulatzeko formula matematikoa zehazten du:

$$\sum_{t=0}^n \frac{FC_t}{(1+b)^t} \geq 0$$

Bertan:

- t zenbaki osotan neurtutako urteak dira.
- FC_t t urtean espero den kuxako fluxua da.



- b deskontu-tasa da; balioa izango da azken sei hilabeteetan Estatuaren hamar urterako zorrak bigarren mailako merkatuan batez beste izandako errendimendua, oinarrizko 200 puntuko diferentzian gehituta.

IV. SAN MARKOS MANKOMUNITATEAREN EREMUAN HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK GAIKA BILTZEKO ZERBITZU-KONTRATUAREN KOSTUEN EGITURAREN ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULAREN AZTERKETA.

IV.1. Aurkeztutako dokumentazioa

San Markos Mankomunitateak honako agiri hauek bidali dizkio Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

- Litzitazioarako kostuen egituraren proposamenari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko txostenaren eskaera, San Markos Mankomunitateko kudeatzaileak sinatua.
- Jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez izanaren ziurtagiria (2022ko martxoaren 2ko GAO, 41. zk.), San Markos Mankomunitateko idazkariak eta presidenteak sinatua.
- Txosten juridikoa eta memoria ekonomikoa, kontratuaren kostuen egitura eta prezioak berrikusteko formula proposatzeko, 2022/02/21ean sinatuta eta 2022-442 erregistro-zenbakiarekin (2022/05/12).
- Txosten juridikoa eta memoria ekonomikoa, kontratuaren kostuen egitura eta prezioak berrikusteko formula proposatzeko, 2022/08/25ean sinatuta eta 2023-163 erregistro-zenbakiarekin (2023/02/16).
- Mankomunitateak sektoreko bost operadore ekonomikori eskatu zizkion kostuen egiturari buruzko txostenak, eta horietako bik baino ez zituzten aurkeztu datuak 2022ko urtarrilean. Informazioa:
 - - COMPAÑÍA ESPAÑOLA DE SERVICIOS PÚBLICOS AUXILIARES SA Erantzun du
 - - FCC MEDIOAMIENTE SAU Erantzun du
 - - SERBITZU ELKARTEA SL Ez du erantzun
 - - ASCAN SERVICIOS URBANOS SL Ez du erantzun
 - - URBASER SA Ez du erantzun

Bestalde, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman kontsultatu dira 2021KONT006 (2021/06) espedientea duten litzitazio-dokumentuak:

- Administrazio-klausula partikularren agiria (AKPA). Egiatzatu da mankomunitateak egindako kostuen egitura sartuta eta justifikatuta dagoela baldintza tekniko partikularren agiriko 6. apartatuan, espedientearekin batera doan memorian.



- AKPAren karatula: 7. apartatuak Lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontuaren berri ematen du, zeina eguneratu eta berrikusi den, izapideak egiteko epea luzatu egin delako. Urteko Lizitazioaren Oinarrizko Aurrekontua banakatuta dago, eta San Markos Mankomunitatearen finantzaketa % 100ekoa dela adierazten du.
- Preskripzio teknikoen agiria (PTA).

IV.3. Kostuen egituraren koadroa berrikustea

Hona hemen San Markos Mankomunitateak aurkezten dituen eta agirietan jasotzen diren azterketa ekonomikoaren eta kostuen egituren koadroak:

AZTERKETA EKONOMIKOAREN KOADROA

Eskulana	3.275.967,00
Ibilgailuen mantentze-lanak eta konponketak	404.690,50
Erregaiak eta lubrifikatzaileak	347.545,50
Amortizazioak	431.185,00
Beste gastu batzuk, gastu orokorrak eta etekina	735.612,00
Zenbateko osoa (BEZik gabe)	5.195.000,00

LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUAREN BANAKAPENA

		Kostu zuzenak / Costes Directos	Zeharkako Kostuak / Costes Indirectos	Guztira/Total
Unitateko Prezioa / Precio Unitario	Oinarria/ Base BEZ/ IVA (10%)	3.271.156,06 €	1.423.843,94 €	4.695.000,00 €
		327.115,61	142.384,39	469.500,00 €
	Guztira/ Total	3.598.271,67	1.566.228,33	5.164.500,00
Prezio Finkoa / Precio Fijo	Oinarria/ Base BEZ/ IVA (10%)	451.920,20 €	48.079,80 €	500.000,00 €
		45.192,02	4.807,98	50.000,00 €
	Guztira/ Total	497.112,22	52.887,78	550.000,00
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua / Precio Base licitación	Oinarria/ Base BEZ/ IVA (10%)	3.723.076,26 €	1.471.923,74 €	5.195.000,00 €
		372.307,63 €	147.192,37 €	519.500,00 €
	Guztira/ Total	4.095.383,89	1.619.116,11	5.714.500,00

Mankomunitateak egindako erregistroa duen memoria ekonomikoan, azaltzen da aurrekontua eguneratu egin dela: Mankomunitatearekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, txostenaren xede den lizitazioa atzeratu egin da, eta, beraz, arrazoizkotzat jotzen da behin-behineko azterketa ekonomikoa merkatuko prezioetara eta egungo egoera ekonomikora eguneratzea.

Lizitazioaren urteko oinarritzko aurrekontua % 10,822916 igo da, eta zenbatetsitako inbertsio kopurua % 11,77742.

KOSTUEN EGITURAREN KOADROA

KOSTUEN EGITURA	%
LANGILE-GASTUAK	63,0600%
FUNTZIONAMENDU-GASTUAK	15,3700%
Mantentze-lana	7,7900%
Erregaiak eta lubrifikatzailak	6,6900%
Aseguruak	0,890%
AMORTIZAZIOAK	8,3000%
ALOKAIRUAK	2,3700%
EKIPO INFORMATIKOAK	0,4000%
NORBERA BABESTEKO	0,9900%
EKIPAMENDUAREN JANTZIA	
TRESNAK ETA ERREMINTAK	0,4200%
GASTU OROKORRAK ETA ETEKINAK	9,0900%
GUZTIRA	100,000%

55/2019 EDan jasotako enpresen efizientzia eta kudeaketa onaren printzipioei buruzko 4. artikulua eta 9. artikularen 7. apartatuaren b) letra justifikatzeko, bi operadore ekonomikoen kostuen egiturari buruzko datuak konparatzen dira, eta datuen batezbesteko aritmetikoa mankomunitateak egindako kostuen egituraren bidez lortzen da.

Egiaztatu da langileen gastuen kostua operadore ekonomikoek emandako batezbesteko aritmetikoaren datuen arabera doitzen dela (pixka bat beherantz), eta guztizkoaren gainean pisu erlatibo handiena duela (% 63,06).

Maileguaren amortizazioetarako enpresen batez besteko kostua mankomunitateak ezarritakoa baino % 8,30 handiagoa da, eta inbertsioetan kostu handia dakar. Finantzaketaren % 100 San Markos Mankomunitateak egiten du, kontratuko baldintza-agirien karatularen 7.3 apartatuaren arabera. Hori dela eta, kostuen egituran esleitutako kostuaren zenbatespena baliozkoa izan daiteke, egitate hori eta mankomunitatearen kontratuen kudeaketan alde aurretik izandako esperientzia kontuan hartuta.



Kontuan hartu behar da bi operadore ekonomikoek aurkeztutako datuetan ez direla bereizi Mozkin Industrialean (MI) eta Gastu Orokorretan (GO) dauden aldeak kostuen bereizketa egiteko garaian; beraz, interpreta daiteke kontzeptu horietako batzuk egituraren beste kostu batzuei eragin dietela. GO eta MI ez dira kostu berrikusgarriak, inola ere, baina kostuen egituran sartu behar dira.

1. OHARRA Bost erantzunak lortzera bideratutako beste kontsultaren bat egitea komeni zen.

2. OHARRA San Markos Mankomunitateak proposatutako kostuen egiturako faktoreen bereizketak GO eta MI biltzen ditu. Bi kostuak barne hartu behar dira, baina egokiagoa da bakoitzaren ehunekoen bereizketa egitea.

Mantentze-lanen kontzeptua bereizi liteke, hura osatzen duten bi kontzeptu moten arabera (ibilgailuak/edukiontziak), kostuen egituraren barruan dagozkien pisuekin. Hori baino lehen, edukiontziak mantentzeak 55/2017 Errege Dekretuan ezarritako baldintzak betetzen dituen baloratu beharko litzateke, berrikusgarritzat jotzeko.

Ez da bereizketarik egiten nahitaezkoak diren eta ez diren aseguruaren artean aseguruaren kontzeptuaren barruan.

Kostuen kontzeptuak bereiz daitezke, hala nola publizitatearena, birziklatzearen inguruko kontzientziazio-kanpainena eta jardueran eragina duten antzeko kontzeptuena.

IV.4. Prezioak berrikustea

Kontratuaren AKPAko 6. apartatuan hau adierazten da: sartutako prezioak berrikusteko formula EDaren 3., 4. eta 7. artikuluetan xedatutakoaren arabera egin da, eta kostuen egituraren inguruan eskumena duen aholku-organoak ezarritakoa kontuan hartuta aplikatuko da; kasu honetan, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak ezarritakoa kontuan hartuta.

Memoria ekonomikoak modu egokian bereizi eta justifikatzen ditu berrikusi beharreko eta berrikusi behar ez diren kostuak, eta berrikusi daitezkeenak prezioak berrikusteari lotutako kostu gisa hartzen ditu; izan ere, ezinbestekoak dira zerbitzua emateko, eta denboran zehar desbideratze garrantzitsuak izan ditzakeela pentsatzen da, kostu

esanguratsuak izateaz gain (jardueraren kostuen egituraren >% 1). Azkenik, honako hauek hartuko dira kontuan:

- Langileen kostuak. (% 63,06)
- Erregaien eta lubrifikatzaileen hornidura-kostuak. (% 6,69)
- Mantentze-lanak eta konponketak. (% 7,79)

Prezioak berrikusteko formula

Mankomunitateak prezioak berrikusteko proposatu duen formula honako hau da:

$$P_t = K_t * P_{t-1}$$

Bertan:

- $P_t = t$ urtean berrikusitako kontratuaren urteko zenbatekoa da.
- $K_t = t$ urteari aplikatutako berrikuspen-koefizientea da.
- P_{t-1} = Kontratuak $t-1$ urtean izandako prezioa da.

K_t berrikuspen-koefizientea lortzeko formula polinomikoa honako hau da:

$$K_t = A*(Ald.S_t) + B*(Ald.M_t) + C*(Ald.L_t) + D$$

Bertan:

- A: Eskulanaren kostuaren pisua, bateko hainbestean adierazia. (0,6306)
- (Ald.S_t) eskulanaren kostuaren aldakuntza da, (1+S_t / t-1) faktorearen baliokidea da, eta horko S_t/t-1 berrikuspen urteko eta aurreko urteko soldata-aldakuntzaren indizea da
- B: Mantentze-/konponketa-zerbitzuaren kostuaren pisua, bateko hainbestean adierazia. (0,0669)
- (Ald.M_t) mantentze-lanen eta konponketen kostuaren aldakuntza da, (1+Mt / t-1) faktorearen baliokidea da, eta horko M_t / t-1 mantentze-lanen gasturako indize nazionalaren estatu-mailako aldakuntza da, eta Estatistikako Institutu Nazionalak (INE) argitaratu du, prezioak berrikusten diren unearen eta aurreko urtearen artean.
- C: Erregai/lubrifikatzaileen kostuaren pisua, bateko hainbestean adierazia. (0,0779)
- (Ald.L_t) erregaien eta lubrifikatzaileen kostuaren aldakuntza da, (1+L_t / t-1) faktorearen baliokidea da, eta horko L_t / t-1 erregaientzako indize nazionalaren estatu-mailako aldakuntza da, eta INE Espainiako estatistika-institutuak argitaratu du, prezioak berrikusten diren unearen eta aurreko urtearen artean.
- D: Berrikusi ezin diren kostuek (hala nola amortizazioak, finantzaketak, etab.) ez dute aldakuntza indizirik, kostua ez baita berrikusteko modukoa. (0,2246)

$A + B + C + D = 1$ formula egiaztatu da

3. OHARRA Prezioak berrikusteko formulak ez du efizientziaren arabera berrikuspena modulatzeko duen faktorerik hartzen barnean (55/2017 Errege Dekretuaren 7.8 artikulua aipatzen duena).

Prezioak berrikusteko indizeak

Egiaztatu da prezioak berrikusteko formula eta indize berberak sartu direla Memoria ekonomikoan eta AKPAren 6. apartatuan; egiaztatu da urteko berrikuspenetan indizeetarako kontsultatu beharreko datu irekien jatorria zuzena dela (gorantz edo beherantz izan daitezke); eta kontratuaren agirietan berrikuspen-epetegi buruzko erreferentzia sartu da, SPKLren 103. artikulua 4. apartatuan adierazten denaren arabera.

Berrikuspen-koefizientea zehazteko formula ez dator bat AKPAren 6. apartatuan adierazten denarekin. Bertan, honela adierazten da:

$$K_t = 0,6306 \cdot (1 + S_{t/t-1}) + 0,0779 \cdot (1 + M_{t/t-1}) + 0,0669 \cdot (1 + L_{t/t-1}) + 0,2246$$

Bertan:

- A: Eskulana ($S_{t/t-1}$)

55/2017 EDaren 5. artikulua aipatzen da, non eskulanaren kostuak mugatzen diren.

Indize gisa Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioan argitaratuko eta ehunekotan adierazitako «itundutako batez besteko soldata-aldakuntza» proposatzen da.

Helbidea: <https://expinterweb.mites.gob.es/series/>

Kokapena: *Principales series > Estadísticas > Condiciones de trabajo y relaciones laborales > Convenios colectivos de trabajo >*

Kontsulta-datuak: *Variable de análisis: Variación salarial media pactada > Variable de clasificación: Ámbito y división de la actividad jornada media pactada > Valor de variable de clasificación: Ámbito superior a la empresa > División CNAE-2009: 38: Recogida, tratamiento y eliminación de residuos; valorización > Periodicidad: Anual*

- B: Mantentze-lanak eta konponketak ($M_{t/t-1}$)

Indize gisa proposatzen da INE Espainiako estatistika-institutuak argitaratutako «0723 Ibilgailu pertsonalak mantentzea eta konpontzea» motako indize nazionalaren estatu-mailako urteko aldakuntza, prezioak berrikusteko unearen eta aurreko urtearen artean.

Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23714>

Kokapena: *INEbase > Nivel y condiciones de vida (IPC) > Índices de precios de consumo y vivienda > Índice de precios de consumo armonizado > Índices de Precios de Consumo Armonizado. Base 2015*

Kontsulta-datuak: *Clase: 0723 Mantenimiento y reparación de vehículos personales > Tipo de dato: Variación Anual > Periodo: El mes inmediatamente anterior al que corresponda efectuar la revisión.*

- C: Erregaiak eta lubrifikatzaileak (L t / t-1)

Indize gisa proposatzen da INE Espainiako estatistika-institutuak argitaratutako «0723 Ibilgailu pertsonalak mantentzea eta konpontzea» motako indize nazionalaren estatu-mailako urteko aldakuntza, prezioak berrikusteko unearen eta aurreko urtearen artean.

Helbidea: <https://www.ine.es/jaxiT3/Tabla.htm?t=23714>

Kokapena: *INEbase > Nivel y condiciones de vida (IPC) > Índices de precios de consumo y vivienda > Índice de precios de consumo armonizado > Índices de Precios de Consumo Armonizado. Base 2015*

Kontsulta-datuak: *Clase: 0722 Carburantes y lubricantes para vehículos personales > Tipo de dato: Variación Anual > Periodo: El mes inmediatamente anterior al que corresponda efectuar la revisión.*

4. OHARRA SPKLren 103. artikularen 4. apartatuaren arabera, «administrazio-klausula partikularren agiriak, halako kasuetan, berrikusteko aplikatu beharreko formula zehaztu beharko du; aldaezina izango da kontratua indarrean dagoen bitartean, eta hark zehaztuko du noiz berrikusiko diren prezioak, **kontratua egiteko eguna kontuan hartuta**, baldin eta kontratua eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hiru hilabeteko epean egiten bada; kontratua geroago egiten bada, hiru hilabeteko epea bukatzen den eguna kontuan hartuta zehaztuko da noiz berrikusi prezioak».

Beraz, berrikusi behar da aldakuntza berrikuspen-dataren eta berrikuspenaren jatorri-dataren arteko aldiari dagokiola, hots, kontratua formalizatzen den datari.

IV.5. Inbertsioaren itzultze-denbora

Itzultze-denbora aztertzeko koadro bat planteatzen da. Koadro horrek zenbateko finakoak ditu diru-sarrera, gastu eta inbertsioetan; izan ere, kalkulatzen da diru-sarrereri prezioak berrikusteko zenbatetsitako aldakuntzak eta gastuen igoeraren kalkulu zenbatetsia gehitzeak (adibidez, azken 10 urteetan izandako batez besteko igoerari ehuneko bat gehituz) ez dakarrela gastuen aldakuntzarik itzultze-denborari dagokionez.

Inbertsioak

Hasieran 3.650.000,00 €-ko inbertsioa egitea planteatzen da. Memoria ekonomikoan ez dago jasota zenbateko horren trazabilitaterik.

Diru-sarrerak

Ez dira kontuan hartzen inbertsioaren errepikatze-denbora kalkulatzeko koadroan sartu beharreko beste diru-sarrera batzuk, aurrekontuaren urteko kanona izan ezik; izan ere,



kontratua amaitzean inbertsioen hondar-balioa zero eurokoa izaten da, kontratuaren iraupena bat baitator inbertsioen bizitza baliagarriarekin; hau da, zerbitzua emateko behar diren hainbat motatako ibilgailuen parkea eta edukiontzia mankomunitatearen esku geratzen dira, eta, nolahi ere, inbertsioak mankomunitatearen titulartasunekoak izango dira.

Era berean, agirietan adierazten da bildutako hondakin mota guztiak mankomunitatearen jabetzakoak izatera pasako direla eta, ondorioz, ez diola mozkinik emango enpresa adjudikaziodunari.

Deskontu-tasaren balioa

Inbertsioa berreskuratzeko aldia justifikatzeko koadroan deskontu-tasa sartu da, eta bertan % 3,0383339 faktorea aplikatzen da, hau da, Espainiako Bankuak 10 urterako bigarren mailako zorraren merkatuan argitaratutako azken 6 hilabeteetako batezbestekoari 200 oinarrizko puntu gehituz lortutakoa (% 1,0383339). 2021eko azarotik 2022ko maiatzera bitarteko hilabeteen batezbestekoa sartzten da (biak barne).

ITURRIA: Banco de España > Inicio > Estadísticas > Estadísticas por publicaciones > Boletín Estadístico > 22. Mercados secundarios de valores

22. MERCADOS SECUNDARIOS DE VALORES
A) Deuda pública

22.8 Principales y cupones de deuda segregada del Estado
Operaciones simples al contado. Conjunto del mercado
Importes negociados y tipos de interés

Millones de euros y porcentajes

	Importes negociados									Tipos de interés				
	Total	Hasta un año	De uno a dos años	De dos a tres años	De tres a cuatro años	De cuatro a seis años	De seis a diez años	De diez a veinte años	De veinte a treinta años	A tres años	A cinco años	A diez años	A quince años	A treinta años
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14
19	16 620	1 322	1 838	1 434	369	2 793	2 664	1 601	1 263	-0,21	0,04	0,63	-	2,19
20	7 258	1 005	1 041	283	288	1 296	586	838	1 035	-0,28	-0,09	0,39	0,74	1,23
21	5 320	1 077	344	320	432	445	462	725	1 514	-0,41	-0,21	0,41	0,81	1,40
22	9 342	478	490	947	757	1 057	634	3 134	1 527	1,26	1,58	2,26	2,52	2,82
21 Jun	543	78	13	27	56	48	31	228	62	-0,40	-0,16	0,54	0,96	1,61
<i>Jul</i>	244	92	5	10	9	7	30	53	38	-0,43	-0,25	0,43	0,87	1,43
<i>Ago</i>	64	3	2	3	21	14	3	18	0	-0,46	-0,35	0,25	0,67	-
<i>Sep</i>	173	8	5	12	14	9	2	19	103	-0,44	-0,27	-	-	-
<i>Oct</i>	387	21	12	49	62	50	37	79	77	-0,39	-0,15	0,52	-	-
<i>Nov</i>	1 082	14	17	75	62	133	109	85	588	-0,37	-0,15	0,56	0,93	-
<i>Dic</i>	529	138	50	66	22	33	17	101	102	-0,43	-0,21	0,44	0,76	1,28
22 Ene	771	81	23	26	11	43	18	238	30	-0,27	0,02	0,69	1,04	1,55
<i>Feb</i>	722	4	9	51	149	44	91	179	180	0,20	0,55	1,26	1,57	2,12
<i>Mar</i>	1 628	15	65	167	198	422	116	270	375	0,28	0,55	1,30	1,65	2,19
<i>Abr</i>	350	58	78	17	4	18	5	170	...	0,75	0,99	-	-	-
<i>May</i>	615	138	67	16	12	26	53	265	39	0,99	1,32	1,98	2,31	-
<i>Jun</i>	839	37	17	23	192	100	59	119	290	1,64	2,17	2,78	3,11	3,27
<i>Jul</i>	528	47	3	5	9	6	3	454	1	1,13	1,52	2,39	2,66	-
<i>Ago</i>	133	11	0	5	1	3	2	111	...	0,96	1,25	-	2,26	-
<i>Sep</i>	568	13	58	260	81	29	102	2	23	2,03	2,42	2,95	3,63	3,33
<i>Oct</i>	899	36	48	30	23	195	97	240	230	2,46	2,74	3,27	3,78	3,67
<i>Nov</i>	1 459	5	35	333	54	95	73	651	213	2,36	2,64	2,87	-	3,58
<i>Dic</i>	830	32	86	14	23	78	15	434	148	2,60	2,76	3,07	3,19	-
23 Ene	1 930	26	177	116	3	132	499	976	...	2,77	2,83	3,33	3,72	-



Pasa den denbora kontuan hartuta, datu hori argitaratutako azken sei hilekora eguneratzea proposatzen da, hau da, 2022ko uztailetik 2023ko urtarrilera (biak barne). 10 urterako batez besteko balioa % 2,372 da. Formularen aplikatu beharreko deskontu-tasaren balioa honako hau da: **b = % 4,372**

Inbertsioaren itzultze-denbora

Azterketa ekonomikoaren 1. ERANSKINAREN arabera, 10 urtekoa izango da inbertsioaren itzultze-denbora. SPKLren 29.4. eta 103. artikuluen arabera, lizitazioarekin zuzenean lotutako inbertsioak berreskuratzeko aldia 5 urtetik gorakoa izatearen eta lizitazioaren zenbatekoaren ondorioz, **prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusi behar dira.** Kontratuko agiriak ere hori egin behar dela zehazten dute.

5. OHARRA 1. ERANSKINeko koadroan (berrikuspen-formularako emandako hasierako datuak baliatuta) egiaztatu da 10 urteko itzultze-denbora lortu dela.

Mankomunitateak kostuen egitura eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua izapidetzeko eta eguneratzeko pasa duen denbora kontuan hartuta, koherentea da berrikuspen-formulako datuak berrikustea eta eguneratzea.

Proposamena berrikusi ondoren, deskontu-tasaren balio eguneratua ezarri da, eta inbertsioaren itzultze-denboraren koadro berari aplikatu zaio. Inbertsioaren itzultze-denbora 11 urtekoa da, eta hori kapitalaren kostuen gaur egungo gorabehera garrantzitsuen adierazle da. Baliteke lizitazioaren oinarritzko aurrekonturako zenbatetsitako zenbatekoak berriz aztertu behar izatea.

Kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko aldiaren kalkulua berrikustea gomendatzen da, adierazitako zentzuan, eta horrek prezioen berrikuspena egiteko aldia zehaztuko du, bai eta kontratuaren iraupena ere.

Ikus txostenaren *A KOADROA*.

V.-ONDORIOAK

Horregatik guztiagatik, San Markos Mankomunitatearen eremuan hiri-hondakin solidoak gaika biltzeko zerbitzu-kontratuaren kostuen egiturari eta prezioak berrikusteko formulari buruzko TXOSTENA bidali da, behin haren edukia txosten honetan jasotako oharretara egokitu ondoren.



A KOADROA.

KUTXEN FLUXUAREN KONPARAZIO-KOADROA/INBERTSIOAREN ITZULTZE-DENBORA, DESKONTU-TASA DESBERDINAK APLIKATUTA:

a) SAN MARKOS MANKOMUNITATEAREN PREZIOAK BERRIKUSTEKO PROPOSAMENA, 2021EKO AZAROTIK 2022KO MAIATZERA BITARTEKO SEIHILEKOARI BURUZKOA.

b) 2023KO MARTXOAN BERRIKUSITAKO TASA, ARGITARATUTAKO AZKEN SEIHILEKOARI BURUZKOA

α) ΓΟΝΟΚΑΝΟΝ ΙΙΣΤΑΛΙΙ ΕΤΙΑΣ 2023ΚΑΝ ΙΙ ΙΙ ΙΙ ΙΙ ΙΙ ΙΙ ΙΙ ΕΔΑ

AÑO	2023	2024	2025	2026	2027	2028	2029	2030	2031	2032	2033	2034
	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
INVERSIONES	3.650.000,00											
INGRESOS CÁNON ANUAL		5.195.000,00	5.195.000,00	5.195.000,00	5.195.000,00	5.195.000,00	5.195.000,00	5.195.000,00	5.195.000,00	5.195.000,00	5.195.000,00	5.195.000,00
COSTES												
PERSONAL		3.275.967,00	3.275.967,00	3.275.967,00	3.275.967,00	3.275.967,00	3.275.967,00	3.275.967,00	3.275.967,00	3.275.967,00	3.275.967,00	3.275.967,00
MANTENIMIENTO		404.690,50	404.690,50	404.690,50	404.690,50	404.690,50	404.690,50	404.690,50	404.690,50	404.690,50	404.690,50	404.690,50
CARBURANTES Y LUBRICANTES		347.545,50	347.545,50	347.545,50	347.545,50	347.545,50	347.545,50	347.545,50	347.545,50	347.545,50	347.545,50	347.545,50
OTROS GASTOS GENERALES		735.612,00	735.612,00	735.612,00	735.612,00	735.612,00	735.612,00	735.612,00	735.612,00	735.612,00	735.612,00	735.612,00
TOTAL COSTES ANUALES		4.763.815,00	4.763.815,00	4.763.815,00	4.763.815,00	4.763.815,00	4.763.815,00	4.763.815,00	4.763.815,00	4.763.815,00	4.763.815,00	4.763.815,00
TASA DE DESCUENTO NOV/2021-MAY/2022												
TASA DE DESCUENTO		3.038.333,90	3.038.333,90	3.038.333,90	3.038.333,90	3.038.333,90	3.038.333,90	3.038.333,90	3.038.333,90	3.038.333,90	3.038.333,90	3.038.333,90
FLUJO DE CAJA SIN INVERSIÓN		431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00
FLUJO DE CAJA DESCONTADO SIN INVERSIÓN		1.030.083.339,00	1.061.668.252,2888	1.093.947.937,1634	1.127.185.285,1217	1.164.323.377,54	1.196.721.484,290	1.233.081.532,7702	1.270.566.669,950	1.309.150.117,0336	1.348.926.689,032	1.389.113.990,939
NECESIDAD DE INVERSIÓN		-3.650.000,00	-2.825.398,67	-2.431.243,56	-2.048.711,07	-1.677.458,46	-1.317.153,14	-967.472,29	-628.102,62	-298.740,09	20.910,40	331.135,22
REVISIÓN TASA DE DESCUENTO JUL/2022-ENE/2023												
TASA DE DESCUENTO		4.372.000,00	4.372.000,00	4.372.000,00	4.372.000,00	4.372.000,00	4.372.000,00	4.372.000,00	4.372.000,00	4.372.000,00	4.372.000,00	4.372.000,00
FLUJO DE CAJA SIN INVERSIÓN		431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00	431.185,00
FLUJO DE CAJA DESCONTADO SIN INVERSIÓN		1.043.720,00	1.089.351.439,4000	1.136.977.883,2869	1.186.686.656,3442	1.236.584.928,75	1.292.718.707,0834	1.349.236.389,9571	1.402.249.830,079	1.467.925.792,650	1.534.019.108,305	1.601.206.037,20
NECESIDAD DE INVERSIÓN		-3.650.000,00	-2.841.058,56	-2.461.820,86	-2.098.468,80	-1.750.337,06	-1.416.788,09	-1.097.211,02	-791.020,60	-497.656,08	-216.580,19	52.721,81